

GURE IZEN ONA

ANTXIÑATIK

Euskaldunak izen ona izan dogu mundu zabalean: Berbako gizonak, biotz onekoak, langilleak, erlejiñotsuak...

Eta izen on ori Euskalerritik kanpoan bizi ta ibilli izan diran gizonak emon dauskue, batez be. Orrein artean itxaskariak, mixiolariak, guda-gizonak eta olakoak.

Kanpotik ona etorri diranak be gure gizartearen entzute ona zabaldu dabe bazterretan eta orregaitik urterik urtera ugariago etorri izan dira.

GAUR GALDUTA

Gaur, zori txarrez, eta mingarria da esan-bearra, euskaldunok izen on au galduta daukagu.

Euskalerria aitatzea munduko bazter guztietan, gudea, gorrotoak, eriotza gogorak, lapurretak eta olakoak gogoratzea da.

España'tarren artean gagozenezan isil-isilik egoitea izaten da onena. Olako arazoren bat berbetara sartzen ba'da, an urteten dau urtetekoak! Iñon diranak esango dautzuez eta zeu egingo zaitue emen izan diran edo eurak izan dirala uste daben oker guztien errudun. Olakorik!

Eta au ez da atzoko kontua. Urte batzuk lenagotik datorrena da. Ez dabe gure arazorik ulertzen eta ulertu gura be ez.

Ameriketan antzera jazo da. Ez dago lengo girorik euskaldunen alde!

Eta ezagunak garan mundu guztian, antzera.

ASKATASUNA BEIÑAGO

Batek baiño geiagok esango dau bear ba'da: Eta zer egiten dogu lengoen lako koipekeriakaz, askatasun bako erria ba' gara? Emen burrukea egin bear da eta burruka gogorra ezer lortu bear ba' dogu!

Or be ba-dago errazoi apur bat, neure ustez. Maite gaituen gizaki orreik ez dabe konturatzen gure Erriaren egoera larria eta il-zoria.

Zalantza barik, askatasuna griña biziz billatu bear dogu, baiña erri baketsuaren bideak ez ete ziran bakezko bideak eta berbako erriak ez ete eukan bere bidea?

Iñork ez dauala jaramonik egiten? Ekin eta ekin izango zan gure irabazia.

URTEEN URTEZ

Izen on au aberastasun aundia izan da gure erriarentzat eta estualdietan laguntza aurkitzeko erea be bai.

Izen on au ber-eskuratu egin bear dogu ba.

Baiña euki genduana urteen urtez lortua zan, eta galdu bizkorrago galdu ba' dogu be, ber-eskuratzea urteen urtez egin bearreko lana izango da.

Eman da zabal zazu munduan frutua.

GAMIZ' ek

Agur

Ezeizu negar, amama
nualako itxaso-ziar
Amerika'tik onañ
egin leiteke egunian.
An egiten da errazez
emen diñoguna: eziña.
* * *

Or dago, berba ta berba
itxaropenez betia.
* * *

Bai... Gomutara datorrit
udean, baratzian,
ate-onduan, ostopian
abia ostenduta,
len arrautzak, gero umiak

pozik ikusi geuzan.
Azi, ta eguak indartu
ba-dabiz inguruan,
baita azartsuena dua
abarrarik abarra;
Eguzki epel azpian
dana da poz-alaya.
* * *

Eguna dua ta gaba
izaten da illun, otza
...ta bijaramon goizian
baratzan, iñudian,
agertu zan otzak ilda
geure txindor gaixua.
* * *

Bai, erraz etorri leike
Amerika'tik ona.
* * *

Igaro dan guda-ekaitzak
ayenatu euzkotarrak
batzuk Amerikan bertan, azi dabe
Orain zarrak Aberrira /sendia
bigurturik begiak
gura leike etorri, bada,
eztau gura sendiak.
Baten-batzuk juan etorri
egiten dabenian
negarrez agurtuten dauz
euzkotar gixajuak.

UTARSUS